

## **Bermeoko EH Bilduren elkarlanerako proposamenak COVID19aren ondorioei aurre egiteko**

### **UDAL TALDE GUZTIOK ELKARLANEAN EGIN DAIGUN, HERRIAK ESKATZEN DIGUN BEZALA**

1. Elkarlanerako mahaia osatu.
3. **Udal Aurrekontuan diru partida barriak sortu** herritarrei lagundu ahal izateko.
4. **Kultur aurrekontua mantendu eta kultura sortzeko eta zabaltzeko ekimenak bultzatu.**
5. **Jai batzordea deitu** herriko jai eta agenda kulturalaren berrantolaketa egiteko.
6. **Egutegi fiskala egokitu**, herritar eta enpresak ez itotzeko epeak luzatu.
7. **Udal emakiden egoera aztertu** eta erreztasunak eman ordainketak egiteko

### **HERRITARREN BIZI KALITATEA HOBETU GIZARTEAREN ARTEKO DESBERDINTASUNAK GUTXITUZ**

1. **Benetako parte hartze prozesua martxan jarri.** Herritarrei hitza eman, kontsultatu eta haiekin adostutako irtenbideak bilatu.
2. **Gizarte-laguntzetarako aurrekontua% 25 handitzea.**
3. **Andrazkoen aurkako indarkeriari aurre egiteko ekimenak martxan ipini.**
4. **Gure eskualdeko ospitala baliabidez hornitu** benetako ospital moduan funtzionatzeko.
5. **Maskarille eta guante pack bat etxe bakoitzantzako.**
6. **Herriko denda eta merkatarientzako EPI ekipo egokiak izateko lagundu.**
7. **Adikzioen inguruko jarraipen zehatza egin.**
8. **Etxeetan interneteko konexioa ez dutenei ematea, umeak hezkuntza aukera berdinak eukiteko, wifi sareak dohain, enpresekin akordioak ordenagailuen erosketan diruz laguntzeko...**

### **LANGABEZIARI AURRE EGITEKO NEURRIAK EZARRI**

1. **Langabetuei zuzendutako orientazio eta formakuntza zerbitzua** ipini.

#### TOKIKO KONTSUMOA SUSTATZEKO MEKANISMOAK EZARRI

1. **Bonodenda kanpaina.** Uda/Udazken/Negua.
2. Herri-ekonomiari laguntzeko **komunikazio-kanpaina**, leloa: "Orain inoiz baino gehiago Bermeo, aisia, kultura eta merkataritza gunea".

#### ENPRESEI LAGUNTZEKO BALIABIDE EKONOMIKOAK BIDERATU

1. Enpresei, bereziki txikiei, laguntza emateko mekanismoak ezartzea. **Dirulaguntza zuzena, 500 € tik 1.500€ra.**
2. Ostalarien aurtengo **terrazen tasa ez kobratzea.**
3. **Enpresen arteko alkarlana** bultzatu.
4. Enpresei teknologi berrietan eta salmenta eredu berrietan murgiltzen lagundu.

#### COVID-19 ETA INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

1. Etorkizunera begira langileei **telelana** egiteko aukera eman.
2. **Bertako Produktuak kontsumitzeko kanpaina** egin herriko baserritar eta elkarteekin batera.
3. **Gune berdeak gehitu** herri barruan.
4. **Portu Zaharrien kotxerik ez.**
5. **Gaztelugatxerainoko oinezko** bidearen proiektua bultzatzea.
6. **Errotak gunean kotxeen abiadura murriztu**, ibili eta kirola egiteko.

Koronabirusak aurretik sekulako erronka jarri digu, herri eta komunitate bezala erantzuteko ordua da. Guztion elkarlana eta elkartasuna beharrezkoa izango da!

Animo eta guztion artean lortuko dugu!

Zaindu gaitezen. Zaindu maite duzun hori!